

# BERRIGARA

129. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, abenduak 3

UDAL  
ORDEZKARIAK  
MINTZO:  
ALVARO  
ESPARZA

BERRIZTE  
LANAK  
KIROLDEGIAN

KIROLAK

IÑAKI SAN  
JOSEREKIN  
BERRIKETAN



150 bergarar  
"miserable"

**BERGARAKO ESTABLEZIMENDU BAIMENDU BAKARRA**

*Praka pare bat erosita poster bat opari*

**Cristina**

Arrurriaga, z/g.  
☎ 76 03 04

451

412


**501**

536

516

**LEVI'S**

the original jeans: since 1850



## AZKARRA, ARGIA, MALGUA.

Ez gaitezen engaina, *Dino*. Zu ez zaude XX. mendean bizitzeko egina\*. Gure mundu honek erantzun bizkorrak, lehiakorrak eta moldaerazak eskatzen ditu. Horregatik sortu ziren herri komunikabideak, haundi-maundiak astunak, motelak eta garestiak direlako. Eta inoiz ez direlako gure herrietan gertatzen denaz gehiegi arduratu.

*Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak* egin ditugu Arrasaten. Pozik gaude. Bost urtetan herrietako aldizkariak, irratiak eta telebistak ugaldtu eta finkatu direlako. Eta benetan merezi izan duelako. Horregatik, ARRASATE KOMUNIKABIDEAK elkartearen izenean eskerrik beroenak babesa, laguntza eta partehartzea eskaini duten guztiei.

***Eskerrik asko zuei!***

\* Jakin ezazu, halere, azken aldi honetan museoetan baino zinean askoz ere maitagarriagoa agertzen zarela.

### Argitaratzailea:

Jardun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara. ☎ 76 08 19

### Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

### Zuzendaria:

Gorka Elorza.

### Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkoroberezar.

### Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo  
Mendibil.

### Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Ederne  
Arenaza. ☎ 76 03 97

### Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña eta Alex Labaien.

### Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezar, Juan Martin Elxpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Inarra eta Ane Mirren Goenaga.

### Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifu.

### Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

### Copyright:

BERRIGARA


Tirada: 3.500 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-  
enen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK



**HIESA**ren Nazioarte-ko eguna izan zen aste-azkena. Abenduaren ba-  
ta, egunetik-egunera  
ugalduz doan gaixotasu-  
naren eguna, Hego Euskal Herrian SIDA gaitzak  
jota daudenen kopurua  
gogorarazteko baliagarria  
izan da, besteak-beste.

Hegoaldean 2.164 pertso-  
nek garatu dute HIESAren  
birusa eta beste 11.000 la-  
gunek daukate birusa. Ez  
dira txantxetan ibiltzeko  
datuak, eta horregatik ez

dago gaizki gogoratzea  
HIESa hartzeko bi modu  
bakar daudela: sexu ha-  
rremanen (semenaren eta  
bajinaren sekrezioaren  
bitartez) eta odolaren bi-  
tarteaz. Kutsatuta dagoen  
emakume haurdun batek  
bere semea ere kontajatu  
dezake.

Deba Garaian, SIDAr  
aurre egiteko sortutako  
elkarte bat ari da lanean,  
"HIES Ekimena" dauka  
izena da. Bere telefonoa  
79 26 99.

**Hego Euskal Herrian HIESA duten  
13.164 pertsona daude.**

## ITURRI ONETIK

### Egonaldiak Jubilatuetan

Bergarako Jubilatuen etxean Eguneko Egonaldietarako Zerbitzua jartzeko aukera aztertzen ari dira Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bergarako Udala. Zerbitzua menpekotasun mailaren bat izan eta euren familiakoekin bizi diren pertsonen zuzendua dago. Helburua, alde batetik, pertsona hauek zaintzeaz arduratzen diren familiei laguntza eskaintzea da eta bestetik, zerbitzua erabiliko dutenen autonomia areagotzea.

## ESAN DUTE

[Ilgandeko Zarautzeko Superprestijioko probaren ondoren] "Larunbatera arte entrenatzeke egon naiz, zirkuitura joan barik osasunak txarrera egiteko beldurrez. Eta lasterketa azkarra izan denez, oraindik okerrago ibili naiz, ezin nuen. Orain, lehenbailehen errekuperatu eta Azpeitia eta Telleriarteko lasterketak gertatzen hasi nahi dut".


**IÑIGO IGARTUA**  
Txirrindularia  
EL DIARIO VASCO

[Azken asteotan Empresas Unidasekin mantentzen duen diferentziengatik entrenatzeke egon ondoren] "Aste honetan oso gogor entrenatu dut larunbateko partidua gertatzeko".

**JOSE MARI ZEZEZAGA**  
Pelotaria  
EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

# Pepelu

## Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

# IRRINTZI

## Kafetegia

Kafea da gure  
berezitasuna

☎ 76 20 50

# EXLIKUN

## BEREZITASUNAK

Fraiskoziuri 6, ☎ 76 51 62

BERGARA



**EL FUGITIVO**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.


Astelehena: 17.00, 19.30, 22.15.



**HUEVOS DE ORO**

Asteartea: 22.30.

Asteazkena: 17.00, 19.00, 22.15.



**EL DIARIO DE LADY M**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ Izen bereko telebista seriean oinarrituta, **Harrison Fordek** protagonizatutako filme honek kritika onak eta arrakasta handia lortu du munduan zehar. *Richar Kimble* medikuari bere emaztearen heriotza leporatzen diote eta ihes egin beharko du...

▼▼ **Bigas Luna** zuzendaria eta **Javier Bardem** aktorea berriz ere elkarlanean (*Jamon, Jamon*).

*Hortera* batek, gaur egun arrakasta lortzeko zer egin dezakeen kontatzen zaigu filme honetan. **Maribel Verdurekin.**

▼▼ **Alain Tanner** suizarrak eginiko azken filmetako bat, bere zikloarekin jarraituz. Filme erotiko honetan, azkenaldian arrakasta lortu duen **Juanjo Puigcorbe** (*Salsa rosa*) aktore kataluinarrari eman zion protagonistaren papera.

**Deiak**

▼ **Abdon Juaristiren** ikasleen erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Diapositiba emanaldia** Antzuolako Gaztetxean bihar, larunbata, 19.00etan.


▼ **Diru erakusketa** Kultur Etxean hilaren 4tik 12ra bitartean.

▼ **Matinala.** *Daniel el travieso* filmea igandean 11.30etan Novedadesen. Larunbatean ere ikusi ahal izango da 17.00etan eta 19.30etan.

▼ **Hitzaldia** eta bideo emanaldia abenduaren 9rako 19.30etan, Kultur Etxean. "Euskal Herriko mito, kontu zaharrak eta berriak" izenburuaz jardungo du J. Martin Apalategik. JARDUNek antolatuta.

**Ogia**

- ▼ **Igandea 5:** Konde.
- ▼ **Astelehena 6:** Bolintxo.
- ▼ **Asteazkena 8:** Mizpildi.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 4:** Puy.
- ▼ **Igandea 5:** Puy.
- ▼ **Astelehena 6:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 7:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 8:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 9:** Camacho.
- ▼ **Ostirala 10:** Puy.

Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

**GOIERRI**  
**Autogidarien eskola**

Fraiskozuri Enparantza 5


Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



**Daniel el travieso** pelikula larunbatean eta igande goizean emango da Novedades aretoan.

▼▼ **Egun hauetako zubia** aprobetxatuz asko izango dira jai egunak herritik kanpo igaroko dituzten bergararrak. Hemen geratzen direnak, berriz, mendira edota Durangoko Liburu eta Diskoen Azokara irteeraxoren bat egingo dute seguruen. Baina bertan geratzen direnentzat ere izango da zerekin disfrutatu. Larunbatean Udal Pelotalekuan Zezeagak jokatu duen partidua, ostiralean Kultur Etxean zabalduko den diru erakusketa..., eta Novedadesen eskainiko diren pelikulak, Harrison Ford ("El Fugitivo") eta Javier Bardem ("Huevos de Oro") ikusteko aukera izango baita. Baina aipamen berezia merezi dute gazte eta hurrek eta horiek, Daniel bihurriaren abenturekin gozatu ahal izango dute larunbatean (17.00 eta 19.30) eta igande goizean (11.30).



**PROFESIONALAK**

- Soroa III eta Oregi / Arteaga eta Oliden.
- Unanue eta Errasti / Lejardi eta Zezeaga.
- Kalonge eta Galardi / Alberdi III eta Badiola I.

Larunbatean,  
16.30etan Udal  
Pelotalekuan.




Zezeagaren "berragertzea" Logroñoko polemikaren ondoren.

**KIROL KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

**BERGARA-UPV**  
Preferente maila.  
Igandea, 15.30. Agorrosin.  
**BERGARA-EIBARTARRAK**  
2. mailako kadeteak.  
Asteazkena Ipintzan.



**ESKUBALOIA**

**BERGARA-PASAITARRA**  
Senior mutilak.  
Larunbata, 17.45. Kiroldegian.  
**BERGARA-URNIETA**  
Kadete neskak  
Larunbata, 19.00. Kiroldegian.

**PELOTA**

**BERGARA-ZUMARRAGA**  
Ostirala, 22.00. Udal Pelotalekuan.  
Kluben arteko senior mailako final laurdenak.  
Aurretik adiskidetasun partidu bat jokatu da.

**ZUBIETA**  
**elektragarintza**

- ✓ Motorren bobinak eta
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48

**Amets**



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI

**Ilara bikoitzean aparkatuta**

BERRIGARARA zuzentzen naiz trafiko multei buruzko gogoeta bat idazteko. Herri honetan (beste askotan bezala) faltarik sinpleenagatik zigortzen zaituzte eta ez dira hartzen guztientzat bistan diren falta grabeagoak.

Lehengunean esate baterako Kruz Gallastegi kalean kotxe mordo bat zegoen ilara bikoitzean aparkatuta. Hori-eta bat nere kotxe parean. Presa asko nuen eta denbora aldetik nahiko gaizki nenbilen etxetik irten nintzenerako.

Ba kotxera heldu eta bozina jotzen egon nintzen bost bat minutuz. Horrek batere efekturik ez zuela ikusirik, inguruko denda eta tabernetara jo nuen kotxearen jabearengatik galdezka. Ezer ez, han ez zutela kotxe haren berrikerik. Desesperaturik, beste 10 minutuz egon nintzen kotxearen ondoan zain (esan beharrik ez dago jabeak kotxea itxi eta ez zuela beste norbaitek mugitzeko aukerarik utzi).

Agertu zen handik 20 minutura kotxearen jabea. Ni oso urduri nengoen ordurako eta, ahotsa pixkat altxatuz, nere arazoaren berri eman nion. Bera ez zen ixilik geratu eta erosketa batzuk egitera etorri eta, aparkalekurik ezean, kotxea ilara bikoitzean utzi behar izan zuela. Hori ez zela aitzakirik erantzun nion eta aparkalekurik ez badago, ez

dela nire arazoa. Udaletxera jotzeko hain kezkatuta bazegoen.

Azkenean modu ez oso egokian agertu ginen eta, nere kalterako, ez nintzen ordurako heldu nere zitara. Lerro hauetatik eskatu nahi dut falta hauek zorroztasun haundiagoz zaintzeko, beste edonor ni bezala kaltetu dezaketelako zenbaitzuk. Eta Udaletxeari ez fijaszeko falta nimiño-etan eta horrelakoak kontutan har ditzala. Besterik gabe, agur.

*Martin Gomez*

**Durangora irteera**

Durangoko euskal liburu eta diskoen azoka hurbiltzen dela eta, hastear dagoen zubi honetan bertatik bueltatxo bat egitera gonbidatu nahi zaituztet. *Makailuaren ibilbidea* jarraituz, Elgetatik behera jo eta Elorriotik kilometro gutxitara aurkituko dituzue gaur egun euskal kultura "egiten" dutenen azken lanak. Ambiente majoa, gure literatura eta musikaren nondik norakoak ezagutzeko ezinbesteko zita eta aberastuko gaituzten erosketak egiteka aukera aproposa. Hori eta gauza gehiago topatuko dituzu Durangon.

Musika eta literaturaen itsasoan, dena ez da makailaua; Legatzak ere badaude!!

*Begoña Erostarbe*

**BERRIGARAKO GUTUNAK**

**Gutunak sailera bidalitako kartak identifikatuta bidali beharko dira BERRIGARAKO Erredakziora eta izen eta abizenarekin sinatuta argitaratuko dira.**

**Talde bat baldin bada idazlea, taldearen izena eta partaide baten izen eta abizenak bidali beharko dira.**

**Bestalde, karten luzera 30 lerro baino gutxiagokoa izatea eta, ahal izanez gero behintzat, makinaz idatzita bidaltzea eskatzen da.**

*BERRIGARAKO Erredakzio Kontseilua*

**Tiira ba!**



**Josu Okina**

## Bazkaria Egoitzan

Egoitza, alargunen elkartekoek lagun arteko bazkaria izango dute datorren asteazkenean, abenduak 8. Parte hartu nahi dutenek, astebukaeran eman dezakete izena elkartearen bertan edota 76 13 26 eta 76 28 57 telefonoetara deituz.

## Gabonetako argiak

Iaz 5 milioi gastatu baziren ere, aurtan 600.000 pzta. bideratuko ditu Udalak Gabonetan kaleak apaintzeko. Herri sarreretan eta San Martin Plazan (Seminarioko fatxadan) jarriko dira bonbilatxoak.

## Mus Txapelketa

Datorren igandean, hilak 5, Elosuko Elur-Mendi elkartearen arratsaldeko 4etatik aurrera, Mus Txapelketa jokatu da. Edozeinek parte hartu ahal izango du, beraz, bertara egertu eta izena ematea nahikoa izango da.



Antzuolatik datorren Uhola erreka eta Deba Ibaiak bat egiten duten gunean, uholdeak izan dira azkenaldian.

# Uhola erreka bideratze lanak, San Antonio inguruan

## Udalbatzaren Osoko Bilkuran onartua

Movilla enpresa inguruan, Uhola erreka (Antzuolatik datorrena) Deba Ibaiarekin bat egiten duen gunea uholdeetatik babesteko eta erreka bideratzeko lanak egitea onartu zen Asteleheneko Osoko Bilkuran. Udalak Seitra enpresari adjudikatu dizkio lanak ia 6 milioi t'ardi pzta.tan.

Udalbatza osatzen duten alderdietatik, EAJ, HB eta PSE-EEK aldeko botoa eman zuten eta EAK, berriz, ezezkoa. EAKo bozeramaileak, Juan Mari Garitanok, esplikatu zu-

enez, "obren adjudikazioa legeak eskatzen dituen hiru presupuesto (enpresa ezberdinenak) kontutan hartzeke egin da, horregatik gure ezeztza".

Victoriano Gallastegi alkateak, berriz, lanak adjudikatu zaizkion enpresak beste batzuetan ere Udalerako lan egin duela eta enpresa fidagarria dela argudiatu zuten adjudikazioaren arrazoia esplikatzeko.

Bestalde, Ur Konfederazioak kasu hauetarako ematen dituen laguntzak

jaso ahal izateko eskaria egin du Udaleko Hirigintza, Obra eta Ingurugiro Batzordeak.

Plenoak herriko zenbait ikastetxetan egin beharreko obrei aurre egiteko diru laguntzak ematea ere onartu zuen eta Udala aurrekontuetan Udaletxeko obrei aurre egiteko bideratu den diru kopurutik, 24 milioi pzta. beste gastu batzuetara bideratzea onartu zen. Azken puntu honetan, EAJ eta PSE-EEK aldeko botoa eman zuten eta HB eta EAK, oster, ezezkoa.



## Iturkintz Berri

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

**INSTALAZIOAK:**  
**Iturkintza**  
**Berogintza**  
**Gasa**

☎ 76 28 04

### Autobusak

Egunkariaren Festarako (abenduak 12) eta Bertso Txapelketako finalerako (abenduak 19) autobusak antolatu ditu JARDUNek. Lehenengoa arratsaldeko 4.15etan irtengo da Beheko Estaziotik, prezioak, 800 pzta. autobusa eta 1.000 pzta. sarrera, eta izena emateko azken eguna ostirala, hilak 10. Bestea, goizeko 9.15etan toki beretik irtengo da. Autobusak 800 pzta, bazkariak 1.900 eta sarrerak 2.000 pzta. balio dute eta izena emateko azken eguna abenduaren 16a. (Jardun elkarte 76 08 19).

### Hondakindegia berria

Gipuzkoako Diputazioak San Kristobalen (Altos Hornoseko hondakindegian), Hondakinen Isurtegi Alternatibo berri bat (1.600 metro karratuko azalera) egitea onartu du. Egitasmoak 45 milioi pzta. ko aurrekontua du. Zaborbiltzaileek normalean jasotzen ez dituzten hondakinak bilduko lirateke hondakindegia berria, hala nola etxeetan egiten diren obretako eskonbroak, edota zaharkituak geratu eta erabiltzen ez diren elektragailuak.



Denbora gutxian berrikuntza lan ugari egin behar izan dira Kiroldegian.

## Obrak Labegaraieta Kiroldegian

*Itokinak dituela eta, teilatua konpondu egingo da*

Joan zen astelehenean egindako Osoko Bilkuran, Udaltzarak aho batez onartu zuen Labegaraieta kiroldegiko teilatuan egin beharreko obrak "Cerramientos Alzairu" enpresari 2.354.050 pzta. tan adjudikatzea.

Udaletxea eta teilatua jarri zuen enpresa akordio batetara iritsi dira obraren gastuak erdibana ordaintzeko. Arrazoia, estalkiaren pintura eta isolamendua denbora baino lehenago narriatu dela.

Teilatuan itokinak ere agertu

omen dira eta Udaleko Hirigintza Batzordeak estalkian txapa kapa berria jartzea erabaki du.

Kiroldegia maiztasunez erabiltzen dutenek ondo baino hobeto dakite negu partean han barruan izaten den hotza nolakoa den, kiroldegiak ez baitu kalefazio sistematik. Hori gutxi balitz, teilatuan itokinak agertu dira eta estalkia egoera kaskarrean dago.

Orain dela 7 urte inguru zabaldu zen Kiroldegia eta harrezkero berrikuntza lan ugari egin dira bertan.

## TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK  
SKODA ZERBITZU BERRIA



Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan  
auzoa ☎ 76 09 31 BERGARA

## Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

## ederTu

20 urte zure zerbitzura,  
kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

BERGARA



# Rafael Herran eta Susana Iza BEDELKAREko presidentea eta presidente ordea


85 dendarik aukeratu zituzten asteazkeneko Sorretera Batzarrean. Estatutuak onartu ziren.

Rafael Herran, Herran Etxekoa eta Susana Iza, Biltokikoa izango dira Bergarako Dendarien Elkarteko (BEDELKAR) presidentea eta presidente ordea. Joan zen asteazkenean UNEDeko Areto Nagusian egin zen Sorretera Batzarrean aukeratu zituzten bildutako 85 dendariek. Komertzianteeek elkarteko estatutuak ere onartu zituzten eta hilean 1.000 pza.ko kuota ordaintzea erabaki zuten.

Joan zen ekainean bildu ziren lehen aldiz herriko dendariak. Euren in-

teresak babesteko elkar-  
tea sortu nahian, 170 bat  
lagun bildu ziren orduan.  
Asteazkenean, ordea, er-  
diak besterik ez. Azken  
hilabeteetan gremio ba-  
koitzeko dendariak bildu  
izan dira eta gremio batek  
ez du ondo ikusi hilabe-  
tero ordaindu behar den  
kuota hain garestia izatea  
eta elkartean ez sartzea  
erabaki du.

BEDELKAR identifika-  
tuko duen logotipoa egi-  
tea izango da elkartearen  
lehen eginkizuna. Hortar-  
ako lehiaketa publikoa  
antolatuko dute.



Rafael Herran izango da BEDELKAREko lehen presidentea.

<p>Erlojutegia <b>iRUDI</b> Bitxitegia</p>	<p>OIHAL PUSKAK <b>FERNANDEZ</b> OIHALAK</p>	<p><i>Zubizaneta</i></p>	<p><b>YAZKI</b> gazte</p>
<p><b>MACAVI</b> Jean Louis David</p>	<p><b>IBARGARAI ALDEKO Merkatarien Elkartea BERGARA</b></p>		<p>LURRINDEGIA <i>alga</i></p>
<p><b>LAGUN ARO RAC</b></p>			<p><b>BOLINTXO KIROLAK</b></p>
<p><i>Flore Ninika</i></p>	<p><b>TENERIFERAKO BIDAIA, bi lagunentzako, zozketatuko dugu gure bezeroen artean. Zozketa 1994ko urtarrilaren 10ean egingo da</b></p>		<p>7 MARES IZOZKIAK</p>
<p><b>Prontaprint!</b> INPRIMATEGIA</p>	<p><i>J. Larrataga</i> <b>MULTIOPTICAS</b></p>	<p><b>ZORIONAK</b></p>	<p><b>M2</b> ERROTULOAK IZADI <i>Santiveri</i></p>
<p><i>Urcelay</i> HARATEGIA</p>		<p><b>HALCON</b> — BIDAIAK —</p>	

# Gaztetxe eta Gotzaindegiaren arteko elkarrizketak etenda

**Pasa den asteko bilerareren ondoren Gazte Asanbladakoek Apezpikutzari idatzi bat bidali zioten eta honek erantzuna eman du.**

Gazte Asanbladak apezpikuarekin izandako elkarrizketaren ondoren zera eskatzen zion Apezpikutzari: "Elkarrizketak aurrera eramateko prest gaudela eta, baldintza berdinetan izateko, Komenio kaleko lokalaren erabilera aldarrikatzen dugu". Gotzaindegiak gazteei erantzuteko lau puntutako idazki bat egin du. Lehen puntuaren arabera: "Goztainingi honek begi onez ikusten du Asanbladak erakusten duen borondatea Gotzainarekin elkarrizketan jarraitzeko, 1993-XI-25ean izandako solasaldiari segida eman asmoz". Hala ere, Gotzaindegiak bigarren puntuari adierazten duenez: "Hala ere, ez dugu ulertzen, nolatan Gazte Asanblada deritzanak baldintza jar dezakeen, Komenio kaleko lokalak beraiek berriro hartzea elkarrizketa hauekin jarraitu abal izateko, kontuan izanik gai honi buruzko elkarrizketa egitea dela, hain zuzen, solasaldi hauen helburua". Gotzaindegiak

bidalitako idatziaren 3. puntua hurrengo da: "Goztainingiak 1993-XI-25eko solasaldian adierazitako bere borondateari eusten dio: ez dituela, alegia, aipatu lokal hauek zabalduko, berietan egin nahi diren obrak hasi aurretik". Lau garren puntuari, berriz, zera dio Apezpikutzak: "...erabaki honek ez du zerikusirik, delako Gazte Asanbladak eragindako ekintzei buruz izan daitezkeen balorazio kulturekin; aitzitik, erabaki honen helburua zera da: parrokiako lokalak direnez, parrokiak ikus dezala zein pastoral asmoren zerbitzuan jarri behar dituen lokal hauek, horrela egokiago erantzuteko pastoral zeregi-nei".

## Asanbladak ekintzekin aurrera

Gotzaindegiaren erantzuna jakin bezain laister, Gazte Asanbladak beste komunikatu bat kaleratu du. Gazteek ez dute ondo ikusten Gotzaindegiak



Gaztetxeok orain 15 egun antolatutako ekitaldietako bat.

hartutako erabakia, beren ustez "eurek argi erakutsi dute ez dutela lokala berri zabaldu nahi. Kontutan hartuta Komenio kalean egingo diren obrak, gutxienez, bementik bi urtetara egingo direla, hor interes inmobiliarioak daudela somatzen dugu". Gazte Asanbladak elkarrizketetan ziharduten bitartean euren aldetik inongo presiorik ez izateko Komenio kaleko lokalak zabaltzea eskatzen zuen: "hori horrela izan balitz -Asanbladak dioenez- elkarrizketak gure aldetik presiorik gabe egiteko aukera zegoen,

Gotzaiarekin izandako bileran, berak, antolatzen genituen ekintza guztiak gelditzea eskatu baitzigun". Baina Gotzaindegiak ez du Gazte Asanbladak eskatutakoa kontutan izan eta ondorioz Gaztetxeok etorkizunean egingo dutena adierazi dute: "Orain, herriko ehundaka gazte kalegorrian gaude, lokalik gabe. Hala ere, asanbladak, ekintza berriak eta kalean nahiz beste toki batzuetan protesta ekitaldiak egingo ditugu". Astelehenean bazkari herrikoia izango da Huajaloteekin.

**AGIRREBEÑA**

Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

**Datorren urtarrilaren 6 eta 7an, mundu zabalean hain ezaguna egin den Victor Hugok idatzitako "Les Misérables" nobelan oinarritutako izen bereko operaren euskal bertsioa estreinatuko da Bergarako Udal Pelotalekuan. Musika Eskolaren 10. urteurrena ospatzeko egingo den lanaren nondik-norakoak kontatuko dizkizuegu jarraian.**

**O**rain dela urtebete t'ardi inguru ekin zioten lanari Musika Eskolakoek, hain zuzen ere "Les Misérables"-en gaztelerazko bertsioa Madrilen estreinatu zenean. Alfredo Gonzalez Chirlaquek eta Valen Moñuxek azken 8 urteetan mundu osoan zehar es-

# Bergaran estreinatuko den "opera-rock" muntaia

*Musika Eskolaren 10. urteurrena ospatzeko, Errege egunean eskainiko dute 150 bat bergararrek*

kaini den obra ospetsuaren ingeles bertsioa lortu zuten. Partiturak eskuetan, eta Bergaran dagoen musika azpiegitura kontutan hartuz (Musika Eskolako orkestra, herriko abesbatzak...), horrelako lan bat herrian egitea posible izan zitekeela pentsatu zuten.

*"Diskoa erosi eta berehala obartu ginen muntaia originalak hiru ordutako iraupena zuela eta berrian egin abal iza-*

*teko zeozer moztu beharra zegoela. Gauzak horrela, Alfredok muntaia-  
ren zati batzuk aukeratu zituen eta ordu t'erdiko partitura moldatu zuen"* esan digu Valen Moñuxek, Errege egunean Bergaran estreinatuko den "Miserableak" obraren eszena moldaera eta zuzendaritzaz arduratzen denak.

Alfredo Gonzalezek musika moldatu zuen eta Valen Moñux, berriz, alde

eszenikoaz arduratu zen: *"Inbestigazio lana nahi-  
ko astuna izan zen. Victor Hugoren 1000 orritako nobela irakurri, testu batzuk ingelesetik gaztelerara itzuli, musika entzun, gaztelerazko bertsioaren muntaia ikusi, materiala erosi..."* diosku Valenek. Joan zen abendurako gidoia prest zuten.

Aurtengo otsailean aurkeztu zien ideia Musika Eskolako Orkestra Sin-

# Miserableak



fonikoko kideei eta Bergarako Orfeoiko abeslariari, eta denek baiezkoa eman zuten. Testua euskarara itzuli eta entsaiatzeari ekin zioten joan zen ekainean.

## 150 bat bergararren lanari esker

150 bat bergarar ari dira lanean: Orkesta Sinfonikoko 65, Bergarako Orfeoiko 50, Orfeoi Gazteko 8 neska-mutiko eta talde horietako kide ez diren herriko beste musikari batzuk: Mireia Osinaga, Fran Iturbe, Aitor Aranburu... Guzti hauek taula gainean ikusi ahal izango ditugu, baina beste lan batzutan aritu direnak edota ari direnak ere badira: Kukuma taldekoak, esate baterako, eszenografiar arduratu dira eta Migel Moñux, Rafa Sanchez eta Pello Txintxurretak, ingelesetik euskarara itzuli dute testua.

Bestalde, jaietan San Martin plazan jartzen den taulatua erabiliko da eta argizatzeaz eta sonorizazioaz enpresa pribatu bat arduratuko da: *"hor joango zaigu milioi t'erdi inguruko presupuesto guztia, zeren kontutan hartu behar da paper garrantzizuenak dituzten abeslariak mikrofono inalanbriko txiki batzuk eramango dituztela paparrean eta horrek kostu handia du"*.

60tik gora traje desberdinak erabiliko dituzte eta jantziak euren artean egiten ari dira. Nere Ibarra eta Fran Martinezek eramaten dute horren ardura: *"alokatu beharko ditugun epokako traje batzuk eta uniforme batzuk izan ezik, beste guztiak muntaiaren parte hartuko dutenen artean egiten ari gara"* esan digu Fran Mar-



Orfeoiko kideak Errege egunean estreinatuko den muntaiarako entsaiatzen ari dira.

tinezek.

Bukatu aurretik, eta izen guztiak gogoratzearen, esan dezagun obra honetako koru-maistra Kristina Larrañaga izango dela eta kantua maistra, berriz, Maria Jesus Ugalde.

### Itzultzaile lanetan

Argazkian ezkerretik eskumara ikus ditzakezue

Pello Txintxurreta, Migel Moñux eta Rafa Sanchez "Miserableak" operako testua ingelesetik euskarara itzuli dutenak. Bere anaia Valenek eskatuta, Migel Moñuxek ekin zion lanari eta honek Pello (bertsolaria) eta Rafari (ingeles irakaslea) laguntza eskatu zien: *"Errege egunean Bergaran estreinatuko den lana "Les Misérables"-en zati bat baino ez da izango, ezin*

*dezakegu konparatu Paris edota Londresen antzeztzen direnekin. Horregatik esan nahi dugu, guk ez dugula obra originala itzuli, obraren zati bat baino. Ez da "Les Misérables"-en euskal bertsioa, eta helburua ez da hori gainera. Musika Eskolako 10. urteurrena ospatzeko, herrian antzezteko antolatzen den muntaiak da. Kontutan hartu behar da obra ho-*

## KUKUMAKoak eszenografia lantzen

Andoni Goiti, Iñigo Martinez eta Mikel Ibarzabal Kukuma taldekoak Zubietako lokalean "Miserableak" muntaiako eszenografia prestatzen ari dira. Frantziako Iraultzan girotuta dago "Miserableak" opera eta garai hartako barrikada bat, parketxo bat eta lantegi irteera bat prestatu dute.

Barrikada egiterakoan, andamaio bat hartu eta beronen gainean egurrezko kajak, zaldi karro bateko gurpilak edota ardo barrikak jarri dituzte. Erabili dituzten materialak, berriz, egurra eta kartoia batez ere. Aste honetan pintatu eta datorren asterako prest

izango dute enkargua.

Kukumakoek ez dituzte normalean horrelako lanak egiten, hankapaluekin lan

egiten baitute. Hala ere, aurtengo karnabaletako sardina ere egin zuten Udalaren enkarguz.



Andoni Goiti, Iñigo Martinez eta Mikel Ibarzabal eszenografia egiten ari dira.

## 8 urteko historia ospetsua

"Les Misérables" musikalaren ahaidea dugu, baina kutsu modernoagoa ere badu, sarri askotan "opera-rock" deitu izan baitzaio. Musikalaren ezaugarri berezietako bat, lurralde bakoitzean bertako hizkuntzan antzeztea da. Victor Hugok frantses hizkuntzan idatzi zuen bere nobela eta testu horretan oinarrituta dagoen musikalak, orain arte 17 hizkuntzatan antzeztu da mundu osoan zehar. Bergaran lehen aldiz euskaraz antzeztu da.

Victor Hugo idazle frantsiarrak 1845 eta 1861 urteen artean idatzi zuen "Les Misérables" elaberria. Foiletoi eran idatzi zuen egunkarrietan argitaratzeko asmoz. Frantziako Iraultzaren (1789) osteko urteetan Frantziako gizartean eta mundu osoan gertatutako aldaketan irudi da.

Alain Boubil dugu "Les Misérables" operaren testu egilea. Berak eta Claude-Michel Schönberg-ek sortu zuten frantseseko lehen bertsioa eta milioi-erdi lagunek baino gehiagok ikusi zuten 1980. urtean Parisen lehen

aldiz estreinatu zenean.

Urte batzuk geroago Cameron Macintosh-ek, besteak-beste "The Phantom of the Opera" musikal ospetsua egin zuenak, "Les Misérables"-en testua eta partitura berrikusketa bultzatu zituen eta 1985.ean estreinatu zuen Londresen. Ordutik, zortzi urte igaro ondoren ere kartelean jarraitzen du. Estatu Bauetako eta mundu osoko musikalaren meka den Broadway-en ere ospe haundiarekin antzeztzen da. 1994.ean Bergaran estreinatuko da.

ian ez da garai batean antolatzen ziren kantaldi, rock jaialdi edota beste eratako ekitaldirik antolatatu azken urte t'erdian.

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak eskatzen dituen segurtasun baldintzak ez omen ditu betetzen Udal Pelotalekuak, baina kasu honetan bai mena emango dio Udalarik "Miserableak" lana antzeztu ahal izateko. "Horrelako muntaia ez da normalean antolatzen eta behingoagatik merezi duela uste dugu. Frontoian ez bada egiten ez da beste inon egingo" esan digu Luis Abajo Kuntura Zinegotziak. Hala ere, ahal den heinean, beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuko dituztela argitu du.

netan parte hartzen dutenak ez direla profesionalak, bakoitzak bere lanbidea du eta lanordu edota ikastorduetatik kanpo egindako esfortzuegatik aurrera atera ahal izango da".

17 kanta itzuli dituzte guztira eta bidean aurkitu dituzten hainbat traba gainditu behar izan dituzte, batez ere euskal hizkuntzak, bere berezitasunagatik sortzen dituenak: "diptongoak, esate baterako, kantatzerakoan problema ugari sortarazten ditu abozkatzerako orduan. Gero ingelesez biru hitzetan esaten dena, euskaraz hamarre-

tan esan behar da eta hori ere arazo bat da. Gaztelatik itzultzea bazeagoen, baina ingeles bertsioa aberatsagoa da eta hortik eutsi genion".

Gauzak hobetu zitezkeela aitortzen badute ere, gustora daude egin duten lanarekin.

### Udal Pelotalekua antzoki

Bergarako frontoian estreinatuko da "Miserableak". Herrian ez da horrelako lan bat egiteko beste antzokirik eta Udal agintariak bertan egitea erabaki dute. Pelota partiduak izan ezik, fronto-



Pello Txintxurreta, Migel Moñux eta Rafa Sanchez normalean egiten ez duten lan batean buru-belarri murgilduta izan dira azken hilabeteetan.

"Les Misérables" testuaren zati bat euskarara itzuli dute.



# ETXEPARE-BILINTX

## LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

*"Bi urte hauetan EAJrekin izandako harremana ona izan da zenbait gairekin gure hika-mikak izan ditugun arren"*

## Alvaro Esparza PSE-EE


**Aste honetan hasi eta hurrengo hiru asteetan, Udalean ordezkaturik dauden lau alderdietako ordezkariak entrebistatuko ditugu orrialde hauetan. DV, Egin, Deia, Ariz-Ondo eta BERRIGARAko herriko berriemateak egindako galderei erantzun diete Alvaro Esparza (PSE-EE), Juan Mari Garitano (EA), Jose Luis Elkoro (HB) eta Victoriano Gallastegik (EAJ). Aste honetan Alvaro Esparzak du hitza.**

- Arau subsidiarioak pil-pilean daude. Zergatik ez zenioten hasierako onarpenera eman eta zein da zuen ikuspuntua gaur egun?

- Gure jarrera ezezkoa izan zen guztiok dakizuen arrazoiengatik. Orduetik hona iritzi berarekin jarraitzen dugu; ulertzen dugu arau horiek garrantzizkoak direla, baina politikoki, sozialki ekar ditzaketan ondorioak ere kontutan hartu behar dira. Azaroaren 22an ordenazioz kanpo geratzen diren etxebizitzetako (San Antonio, Zubieta eta Fraiskozuri) buruz, talde sozialistak bi proposamen aurkeztu ditu: lehenengo ibaiaren beste azterketa hidrolojiko bat egingea, Konfederazioak

markatu duen ibaiaren zabalera beharrezkoa den ala ez ikusteko. Beharrezkoa bada, eta 15 urteko epean kapazitate ekonomikoa izanez gero, arauetatik kanpo uztearen alde botatuko genuke. Baina Udala eta bizilagunen artean akordiorik ez balego, negoziatioetan hirugarren parte bat izatea eskatuko genuke. Eta azterketa horrek oraingo zabalera egokia dela erabakiko balu, edizio horiek kontsolidatzearen aldeko apostua egingo genuke dudarik gabe.

- Zubietako etxebizitzak ere (5. ataritik 31.era) ordenazioz kanpo geratu dira. Horrek esan nahi du Konfederazioak aurretik egindako ibaiaren bide-



Alvaro Esparza Udaleko Ongizate Zerbitzuko buru dugu.

**"Arau subsidiarioak garrantzizkoak dira baina sozialki ekar ditzaketan, ondorioak ere hartu behar dira kontutan"**

**ratze lanak gaizki egin zirela? Edo Udalaren aitzaki bat al da etxe horiek kentzeko?**

- Gai hori gure artean eztabaidatu behar dugu, argitu behar dugu zergatik 5etik 31era arteko

etxebizitzak eta Mugerza kaleko 1. goa kontutan hartu diren ibai bideratzeak. Horregatik eskatu dugu azterketa hidrolojikoak. Arazo nagusia Fraiskozuri eta Zubieta dira eta Ibargarai kalea bideratze-

# HERRIKO ORDEZKARIAK MINTZO

ko ordenazioz kanpo geratu diren Zubietako 1 eta 3. atariaren (22. area) arazo ere aztertuko dugu. Zergatik ez da Infernukua ere bertan sartu? Dena den, egin behar dena egiteko 15 urteko epea uste dugu ondo dagoela; ezin dezakegu 40-50 urtetan espekulatzeko laga, sozialki oso txarra da.

**- Bi galdera: zergatik boto aldaketa arau subsidiarioetan (hasieran oneritza eman zenuen) eta ez al litzateke lojikoago edo etikoa goa izango abstentzioa, kontutuan izanik afektatu bat [Javier Cendoya] alderdikidea dela?**

- Bizitzak gorabehera asko izaten ditu. Lehengo ahaztu eta gaur egunekora mugatu behar dugu. Eta bigarrenari erantzunez, gauzak ezberdindu beharra dago; nahiz eta pertsona bat politikoa izan, beste herritar bati bezala arazo bat to-

katu dakioke. Eta eskubide eta obligazio guztiak dauzka berari dagokion gai bat defenditzeko eta ahal diren irtenbideak topatzeko arazo horri. Soluzioak eman daitezke.

**- Kointzidentzia izan da Gobernu Batzordearekin desadostasuna izatea juxtu afektatutako bat desadostasuna azaldu duen partiduan dagoelako?**

- Ez.

**- Interes bat defenditzeagatik dago kontra orduan?**

- Ezta. Bera hor egon daiteke baina guk beste informe bat dugu alderdi mailan eta Diputazioan ere izan gara. Arauak, orokorrean, ondo egon daitezke, baina teknikoki puntu beltz bat dago. Arauetatik kanpo uzteaz gain helmugara heldu beharra dago.

**- Gobernu Batzordeak aktuzio planik ez zuela uler daiteke orduan?**

- Besteei egin beharreko galdera da hori. Gauza bat da gestio municipala eta bestea da alderdi bakoitzak duen ikuspuntu politikoa. Dena den, gure tira-birak izan ditzakegun arren, Gobernu Batzordean jarraitzen dugu nahiz eta orduan jendeak Gobernu Batzordea hautsi egingo zela pentsatu.

## Ongizate Zerbitzua

**- Beste gai batetara pasatuz, Ongizate Zerbitzuko buru zaitugu. Zeintzuk dira zerbitzuko beharrik haundienak? Jendeak parte hartzen al du?**

- Problematika handia sortzen da zerbitzua-  
ren inguruan. Etxez etxeko laguntzak, gutxituak, hauentzat sortu nahi dugun eguneko zerbitzua, hezitzaileak... Presupuesto aldetik, Diputazioak subentzionatzen gaitu eta udal mailan egin

beharreko aktuzioak gu geuk egin behar ditugula argi daukat. Zerbitzu sozialek irtenbidea ematen diete arazo askori eta orain eginiko aldaketekin salto kualitatibo zein kuantitatiboa eman dugu; egiten diren lanen berri jakin ahal izango da eta funtzionamendua hobera aldatuko dela uste dugu. Laguntza benefikoetan esaterako, 16 milioitik 17ra pasatuko gara. Eta partaidetzari dagokionez, oso ona da eta familiarrik pozik daudela somatzen da. Gutxituen kasuan ezin izan da oztopo arkitetkonoikoei buruzko plangintza oraindik aurrera eramane eta hori izango da hain zuzen lehentasuna izango duen hurrengo proiektua. Baina aurrekontuak konjeltuta daude orain.

**- Bergara ze mailatan dago zerbitzu sozialen rankingean?**

- Uste dut ondo gaudela. Ez daukat daturik



Alvaro Esparza herriko berriemalen galderari erantzunez.

.....

**"Gutxituek  
kalean  
dituzten  
oztopoak  
kentzea  
izango da  
Ongizate  
Zerbitzuaren  
hurrengo  
proiektua"**

# HERRIKO ORDEZKARIAK MINTZO

momentuan baina Gipuzkoa rankingeko lehendabiziko postuetan dago eta Bergara Gipuzkoa barruan beste horrenbeste.

- **Ordezko Zerbitzu Soziala bete ez dutenez gartzela onartu duen alderdi politiko batekoa zara. Orain intsumisoen aurkako epaiketak hasi dira. Zergatik ez da, beste herrietan gertatu den bezala, herriko intsumisoerik politikoen solidaritatea eman?**


- Aldaketa haundia izan da nik soldaduzka egin nuenetik. Orduan ez zegoen gaur dagoen kontzientziazioa. Nik orduan egin nuen analisiaren arabera, soldaduzkak ez du ezertarako balio eta profesionala izan behar luke ejertzitza. Baina hori balorazio pertsonala da. Politikoki, argumento argiak daude; legea bete behar da. Baina gazteen jarrerara ikusita arazo horri irtenbideak bilatu behar zaizkio. Debate hori badago gaur alderdian baina gehiengoaren eritzia da nagusi demokrazia guztietan bezala.

- **Kataluinan Ordezko Zerbitzua bete behar duten gazteak erakundeetan erabiltzen ari dira. Ongizate Zerbitzuan prest egingo zinateke gazte horiek hartzeko?**

- Herri bakoitzean aztertu beharreko gaia da. Njk printzipioz aldeko eritzia dut.

- **Baina problematika serio hori lantzeko egoki prestatuta dagoen jendea behar da. Borondateko jendeak beste behar batzuk bete beharko lituzke.**

- Hipotekikoki ari gara.



Espazari ez zitzaion gustatzen Gaztetxearen funtzionamendua.

- **Gaztetxea itxi berri dute. Kontutan hartzen dira gazteak zure zerbitzuan?**

- Nire departamentuari dagokion neurrian bai. Ez da gure arazoa Gaztetxea. Udala arazo honetan sartu izan dute baina Udalak ez du parterik hor. Gazteek zer behar duten planteatu dezake Udalak. Egia da ez dutela irtenbide gehiegirik baina Gaztetxeak ezin dezake jarraitu orainarte bezala. Erresponsabilitatea guztioz izan behar dugu eta bizitza sozialean dagoen diziplina errespetatu behar da. Irtenbidea, gazte guztientzat topatu behar da. Bergarak gazte zentruen bat behar du, erabilpen askotarako zentru bat adibidez, biblioteca, taberna alkoholik gabe, musika, jokuak... izango lituzkeena. Aisialdirako toki bat komeni da, gazteak beste herri batzutar

.....  
**"Bergarak gazte zentruen bat behar du, aisialdirako toki bat, plurala eta guztiek errespetatuko duten araudi batekin"**

ez joateko gaur egun gertatzen ari den bezala. Baina Udalak hori egitekoan, gazteek ere apostu egin behar dute; plurala izan, araudi bat bete. Ez duela beteko esaten duenak ez luke bertan sartzetik izan behar.

- **Zuen alderdia Gaztetxearen sententzia jakiterakoan poztu egin al zen?**

- Nik ez nuen belau-neko minik somatu.

- **Bestaide, estudio baten arabera, jeringilla gehien saltzen den herria da Bergara.**

- Kanpotik ere etor daiteke jendea.

- **Droga banatzen al da orduan?**

- Drogaren arazoan, gure departamentuan prebentzioa lantzen dugu batipat. Droga, IHESA... eta beste hainbat arazori buruzko informazioa zabaltzen saiatzen gara baina gero bakoitzak bere bizitzan egiten duena kontrolatzea oso zaila da. Hortik aurrera, arazoan murgilduta dauden pertsonen ahal den neurrian laguntzea baino ez zaigu geratzen.

- **Legislatura hasieran anbulatorioko bigarren pisua martxan jartzea agindu zenuen...**

- Cendoyak (Osasuna eta Hirugarren adineko departamentuaren burua) hobeto ezagutzen du gai hau. Alkatearen eskuetan dago momentuan. Beraekin hizketan izan da eta Osakidetzarekin negoziatzeko daudela uste dut.

## **Merkatua**

- **Merkatuaren auzian zein da zuen jarrerara?**

- Gobernu taldearena. Alkateari proposamen bat



# HERRIKO ORDEZKARIAK MINTZO

egin genion (4 milioi pta. postu bakoitzeko) eta Plenora eramateko zain gaude. Gure proposamena itxia da. 5,5 milioi eskatzen genuen hasieran eta komertziantek 3 besterik ez zuten eskeintzen beste herri batzutako eredu jarraituz.

- **Alkatea beste prezio bat negoziatzen ari omen da.**

- Ez dut ezagutzen beste propestarik. PSE-EEren eritziz ezin daiteke hortik beherako prezio bat negoziatu. Komertziantek garbi jakin behar dute merkatua 299 milioi pta. kostatu dela. Estudio ekonomiko bat eginda 25 urtean 6-7 milioi kostatzen zaie komertzianteei postu bakoitza eta hori oso prezio ona da. Eta beren partetik ez da flexibilizatorik egon.

- **Akordioa zegoela jakin arazi zen orain aste gutxi [notizia hori agertu zen prentsan alkateak eginiko adierazpen batzuri jarraituz]...**

- Ez da akordiorik egon inoiz. Ni baino gehiago dakizue. Segun eta baldintzak zeintzuk diren berplantetuko genuke arazoa. Partikularren interesak eta interes publikoak zaindu behar ditugu, bestela beste edonor etor daiteke lokal baten eske.

- **Eta zer deritzozu sortu berri den BEDEKAR Komertzianteen**

**Asoziazioari?**

- Elkartu egin behar dira komertziantek txikiak. Normalean haundiak txikia jaten du eta bakoitzak bere interesa defendatu behar du. Ni behintzat txikiaren aldekoa izan naiz beti.

- **Udalaren presu- puestoa hipotekatuta al dago Udaletxeko obregatik.**

- Ez dut uste. Hori aurreikusita zegoen. Dena den, orain Olaso Dorrearen problema gehitu zaio. Baina, aurrekontua finkatzerakoan argi dago hori eta aurrekontuak murrizteko heltzen zaizkigun aginduak hartzen direla kontutan.

## PSE-EE fusioa

- **Zer balorazio egingen duzu PSE eta EEren arteko fusioaz?**

- 9 hilabate besterik ez daramagu elkarrekin. Zenbaitzuk apostu egiten zuten ez zuela funtzionatuko baina fusio positiboa izan da eta EEk aportazio onak egin ditu, euskaren gaian esate baterako. Lehen euskaldun eta espagnolismoaren konfrontazioa aipatzen zen beti eta inora ez geramatzen bereizketa hori ahazten saiatu gara.

- **Alderdi barruan lehen desadostasunak ere irten dira argitara...**

- Hori normala da. Konbibentzia baten ger-



"EEk aportazio onak egin dizkio PSEri euskararen gaian"

## "Ekainaren 6an lortutako emaitzak ikusita, hurrengo udal hauteskundeetan 3 kontzejal lor ditzakegu"

tatzen diren gauzak dira baina gaingitu eta aurrera jo daiteke. Zentzu horretan ematen ari diren pausuak positiboak dira.

- **Eta EAJrekin Gobernu Batzordean egoitea nola baloratzen duzu?**

- Gestioak balio du azkenean. Hain ezberdinak diren bi partiduen artean txoke egin dezakegu gauza askotan baina horrek ez gaitu harritu behar, arau subsidiarioekin gertatu zen bezala.

Bizitza politikoa eta gobernuaren lana bereiztu behar dira. Bi urte hauetan harremana ona izanda, gure "hika-mikak" izaten ditugun arren.

- **Eta hurrengo udal hauteskundetarako ze asmo daukazu?**

- 3 kontzejal lortzea. Ekainaren 6an Euskadi mailan lortu genituen emaitzak hor daude eta Gipuzkoan une honetan dugun lineari jarraituz, 3 kontzejal lortzera iritsi gaitzke.



### LARRUAZALAREN AZTERKETA DOAN

Zure azala aldatua baldin badaukazu; deshidratazioa, aknea, koipea, zimurrak, ahuldura..., nabari badituzu eta gustora ez bazaude, etor zaitez lehenbailehen, zure azala **DOAN AZTERTUKO DIZUGU** zure arazoaren arrazoia ezagutzeko.

**LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** itxaroten zaitugu. Bidekurutzeta, 7. zka., lehen. 763171 telefonoa.

## ETXALAR

### KRUASANTEGIA

Gosariak eta meriendak


Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68



**TOSHARE**

**ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
**BERGARA**




BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larranaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55  
**BERGARA**

## Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtean?



**David Lopez de Abetxuko**  
18 urte, ikaslea

Zortzi-hamar bat. Eskolan agintzen dizkigutenak eta udako oporraldietan telebistan iragartzen dituztenak.




**Mari Sol Guillen**  
40 urte, etxeakoandrea

Gutxi irakurtzen dut baina irakurtzekotan, Planeta Sariko irabazleak eta horrelakoak.



**Garbiñe Elorza**  
27 urte, langilea

Lau edo gehiago. Batez ere nobelak baina bestelakoak ere bai. Euskaraz eta gazteleraz, bietara.



**Pako Urzelai**  
59 urte, jubilatua

Hilero liburu bat edo irakurtzen dut. Historia klasikoak eta Agatha Christieren nobelak gustatzen zaizkit gehien.

**FS**  
oto sistema

*Appéniz*

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteletako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

## HITZALDIA-BIDEO EMANALDIA

**"Euskal Herriko mito, kontu zaharrak eta berriak"**

**HIZLARIA: JOXEMARTIN APALATEGI**  
Abenduak 9, 19.30etan Kultur Etxean.





## Elemen Pres

Udaletxeak, Euskara Zerbitzuaren bidez, bertako hizkuntza bultzatzeko antolatu duen programaren barne, Bergarako Lanbide Hezkuntza Eskola (edo herrian ezagutzen dugun eran, "Elementala") euskara hutsean idatzitako aldizkaria sortzen ari da.

Aldizkari hau bertsoz, ipuinez, bitxikeriaz... osaturik egongo da; testuek esaten dutena hornitzeko eta baieztatzeko, argazkiak eta marrazketak erabiliko direlarik.

Batzuk esango duzue: zer dela eta, beste aldizkari bat herrian? Ez ahaztu, irakurle, zer eragin daukan -adin guztietan eta zer esanik ez gaztaroan- norberak egindako lanen bat beste batzuegana heltzeak eta errekonozimendua lortzeak.

Hori dela eta sortutako testuak paperetan ikusten dituztenean idazteko gogoia eta ilusioa indartuko zaielakoan gaude.

Beraz, ez da helburu makala aldizkariaren batzordeak markatuta daukana: idazmen/sormena landu, euskara tresna gisa erabiliz, kontuan hartzen badugu gaurko gazteek ikus-entzungailuen bidez hainbat gauza jasotzeko ohitura daukatela.

Ongi-etorria eman diezaiegun ELEMEN PRES jai berriari eta bertako ikasle-idazleei. Hemendik aurrera irakurriz/idatziz... gozatu!!

**Mertxe Laskurain**



## Zuk ere baduzu zereginik

Duela gutxi aldizkari honetan bere jaiotzaren berri izan genuen. Ondoren, mendiz mendi, bailaraz bailara zabaldu da bere berri Deba Garaiko leku gehienetara iritsiz.

Demokrazia garaiak omen diren hauetan askotan entzuten da horrelakorik: "Gure ordezkari politikoek hartzen dituzten erabakiak ongi hartuak daude, azken finean gehiengo batek aukeratu bait dituzte".

Ez nago ados goian aipaturiko politikari buruzko ikuspegi sinpleegiarekin, izan ere, demokraziak eguneroko arazoetan partehartzeko aukerak eskaini behar dizkio herritarrari.

Jaio berria den erakunde hori ere partehartzeko, lana egiteko eta bere abotsa jakinarazteko sortua da. Etorriko diren urteetan ere gure inguruan aldaketa sakonak eragingo dituzten egitasmoen aurrean gaude: Maltzaga-Urbina komunikabide ardatza dela, ondoren egitekoa den Abiadura Handiko Trena dela, Bergarako arau subsidiarioak direla, mendi tontorretan antenak eraiki behar direla, zubiak bota behar direla, pistak zabaldu behar direla eta abar luze bat. Gauzak behar diren bezala ez badira egiten gure ondasun ekologikoa, artistikoa eta kulturala hipotekatua geratzeko arriskuan aurkitzen da. Horrexegatik gure eritzia, gure partehartzea oso estimatua izango da egitasmo guzti horiek eztabaidatzeko, beste egitasmo batzuk edo alternatibak proposatzeko, e.a. Nahi duenak izango du lan egiteko aukera: informazioa batu, ikerketak txikiak burutu, e.a. Anima zaitetz eta zatoz gurera, Kapirixora, baduzu zereginik eta.

**Xabier Larrañaga**

**OILAGORRA**  
**Taberna**

Barrenkale 21, BERGARA

**MINER**  
**ardak**

Biltegi telefonoa: 76 41 41

**Ardo**  
**onak,**  
**jakina**

**MAHER**  
**Biltegiak L.E.**  
**Oihal etxea**

Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

**INFERNUKUA**  
**TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

**LAKET**

**Gizon Emakume**

Barrenkale 35 BERGARA



DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 06 37  
76 21 80



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



☐ **Herri komunikabideak aztergai**

Joan zen astebukaeran **Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak** izan ziren Arrasaten. Herrietako komunikabideetan lanean dihardugunok bildu ginen bertan, geure eguneroko jardunaren nondik-norakoak eztabaidatu eta esperiantziak elkar-trukatzeke. **Miguel Angel Elkoroberezibar BERRIGARA**ko zuzendari izandakoak (argazkian), "Euskarazko herri komunikabideen publizitateari buruzko azterketa" izenburuko txostena aurkeztu zuen.



☐ **Dantza egunak**

**JARDUN Elkarteak** antolatuta, 39 lagun hainbat dantza klase ikasten ibili dira larunbatero Errenteriko **Ereintza** dantza taldeko bi kideren eskutik. Klaseak joan zen larunbatean bukatu ziren eta *Valsa*, *rocka* edota *manboa* erabat menperatzeko aukera izan dute ikastaroko partaideek. Laister, larunbat gauetan, ikastarora joan eta joan ez direnen arteko aldea nabaritzen hasiko da herriko eta inguruko taberna eta dantzalekuetan. Ikusi behar...

**IBARGUREN PENTSUA**

**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

□ Mizpirualden

**Sor Sara Agirre** mutrikuarra dugu Mizpirualde Egoitzan lanean diharduten 7 monjen artean, denborarik gutxien daramana. Sor Sara irailaren 11a ezkeroztik dago Mizpirualden, beraz hilabete pare bat besterik ez darama Bergaran.

Aurrez, Durangoko zaharren egoitzan jardun zuen 27 urtetan. *"Gustora nago hemen. Durangoko zaharren egoitza hau baino txikiagoa da, honen erdia edo, hemen 120 lagun inguru daude baina lanean dihardugun 7 monja eta beste Gizarte Laguntzaileekin batera nahiko ondo moldatzen garelara uste dut"*, esan digu. Ongi etorria gurera.



□ Jekarleku berriak

**Bideberriko eta Fraiskoazuri plazako** jekarleku publikoak konpontzen eta aldatzen aritu dira egun hauetan Udal langileak. Bideberri erabat zaharkituak eta kasu batzuetan apurtuta zeuden bankoak konpondu eta pintatu egin ditzute eta Fraiskoazuri plazan, berriz, arrizko jarleku zaharren ordeztu, beste berri batzuk ipini dituzte. Lehen zeudenak politagoak zirela esango dutenak izango dira; beste batzuk, berriz, banko publikoak konpontzeko ordua zela esango dute. Kontuak-kontu, herriko kale eta plazetako banku publikoak hobeto zaindu beharko genituela uste dugu. Ea ba, txintxo ibili hemendik aurrera!!

**Zertan dihardute ba?**

MILLAN/MURGIZU



Udalak bultzatutako "Arrisku Soldata" programaren barruan ematen diren laguntzak jasoko dituzte aurten Natxo Millan (beiradura) eta Izaskun Murgizuk (artisauek) aurkeztutako proiektuek.

JABI IBARRA



25 urteko bergararra, 2. erregional mailako Bergarako taldeko entrenatzailea den Manu Diazek taldean jokatzeko deitu du. Ibarra iaz ere taldean aritu zen baina aurten lagata zuen.

**HARATEGIA**  
**ANTIA**  
**URDAITEGIA**  
 Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.  
 Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**MAKAILO**  
 Makailau **ETXEA**  
 kazuelak gertatzen ditugu  
 Ibargarai 15

**T**  
**GANBARA**  
**B**  
**E**  
**R**  
**N**  
**A**  
 Berezitasunak:  
 Pintxoak eta kafea kremarekin  
 Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

# Umore giroan

## Llave inglesa

1947. urtian Eibarren oore aundi-xakin ospatu zan "Congreso Eucaristico" a. Egundoko jai eta jendetza aundixak izan ziren. Plaentxiatarrek be arritxuta geratu ziran. Egun aietan etorri zan plaentxiatar bat Eibarrera eta emengo batzuei esan zetsen:

- Eibartarrak modukorik eztagok! Zuek zarie "llave inglesa" modukoak.
- Zer ba?
- Zuek turka guztietera allegatzen zarie. Danera!!

## "Hijo bastardo"

Eibarko kuadrilla batekuak ziran biak. Bata, gizon jakitxuna eta estudio andixak eindakua. Bestia, "brotxa gordako" pintoria. Egun baten eta diskusiñuan ari zirala, esan naixan estudiosoari familiko "ondria" zala, au beste au, baiña, esan zetsan:

- Ya lo creo, tú eres el hijo bastardo de la familia.

Orduan, asarre, gure intelektuak:

- I, txotxo, esaixak konfunditxu gero Goyaren pintzelak ire brotxa txarrixekin!

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Soraluce Kooperatibak 13 milioi pta.ko kreditua jaso zuen orain 20 urte.

## 13 milioiko kreditua Soraluce Koop.rentzat

Atzo goizeko 11tan, probintzi mailako lan ordezkariaren bulegoan Don Salvador Asenjo Tovar ordezkari jauna eta enplegu idazkaria bertan zirela, 13.040.000 pta.ko kreditua eman zitzaion Bergarako Soraluce Kooperatibari. Kreditu hau Lanaren babeserako Fondoak emandakoa da eta lokalak haunditu eta lanpostu berriak sortzeko erabalko da.

**Diario Vasco. 1973, abenduak 2.**

## Bonba batek egin du eztanda zabor kamioi batean

Igande gaueko 9.30etan Udalaren zabor kamioi batean jarrita zegoen bonba bat lehertu zen. Lehergailua kamioiaren kanbio-kaxaren ondoan jarrita zegoen eta kabina erabat txikituta utzi zuen. Kamioia Ramon Maria Lili kalean aparkatuta zegoen.

**Diario Vasco. 1973, abenduak 4.**

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak  
hemerotekatik bildutako notiziak**

# MUJIKA

## Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

# ONENA

## TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA





# Zumelaga


## JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5

BERGARA

☎ 76 20 21



# ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## *GALDE DEBALDE*

AGUSTIN GALLASTEGI

Epele-Kanpazar errepidea abenduaren 25erako, Natibitate egunerako, bukatuta izango omen da. Baina Kanpazar inguruan, Gipuzkoa eta Bizkaia lotuko dituen tunela egingo da datorren urtean seguruen. Aurreko **Galde Debalde** den tunel horretatik gertuen geratuko den Bergarako baserriaren izena eskatzen genizuen.

Erantzun ezberdin ugari jaso ditugu. Batzuk **Gongeta**, beste batzuk **Altuna** eta gutxienez **Zelaitxo** jarri duzue. Azken hau da erantzun zuzena. **AGUSTIN GALLASTEGI** ik asmatu du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, ZUBIKUA JANTZIDENDAK emandako saria. ZORIONAK!!

Besteok segi jokutzen!!

# HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK

**FAGOR**




## JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



AGUSTIN GALLASTEGIK jaso du aste honetan ZUBIKUAK emandako saria.



**zumelaga**

**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5 BERGARA  
☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUMELAGA JATETXEAk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Joan zen astean Zaharren astea izan zen Mizpirualde Egoitzan. Jokuak, dantzaldiak, kantaldiak eta beste eratako ekitaldiak izan ziren. Hori aprobetxatuz, aste honetan zaharren egoitzari buruzko galdera egitea egokia iruditu zaigu. Mizpirualden 120 bat lagun bizi dira, adin ezberdinetako gizon-emakumeak eta guztiak Bergara, Antzuola edota Elgetakoak. Hauxe duzue aste honetako galdera.

**Ze izen du Mizpirualde Egoitzan bizi den pertsonarik zaharrenak, zenbat urte ditu eta zein izan zen bere lanbidea?**



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



**Iñaki San Jose, 36 urteko bergarra, Gipuzkoako Futbol Federazioko direktiboa dugu orain dela 4 urtetik. Aurrez, Bergara K.E.ko presidentea izan zen. Udal langilea. Egun hauetan Gipuzkoako Futbol Federazioaren 75. urteurrena ospatzen dela eta berarekin izan gara.**

**- Zein da zure eginkizuna Gipuzkoako Futbol Federazioan?**

- Federazioko futbol eskolak aurrera ateratzea batez ere. Federazioak Gipuzkoa osoan bost bailadatan banatuta ditu futbol eskolak. Horrez gain, 75. urteurrenaren ospakizuna dela eta, hainbat ekitaldi antolatzea tokatu zaigu.

**- Emaizkiguzu Euskadiko selekzioak jokatuko duen partiduari buruzko xehetasunak.**

- Abenduaren 22an jokatuko da Anoetan eta Boliviako selekzioa eto-

## Gipuzkoako Futbol Federazioko direktiboa

# IÑAKI SAN JOSE: "Realarekin harremanak oso normalak dira"

rriko da. Partidua hasi aurretik, probintziako elkarte guztiak ordezkaturiko dituzten 125 haur bilduko ditugu, bakoitza klub bateko kamisetarekin jantzita. Bestalde, federazioko himnoa eskainiko dute Bergarako Udal Musika Bandak, Orfeoiak, Aritzeta abesbatzak, Tipleen abesbatzak eta Orfeoi Gazteak.

**- Selekzionatzailea nor izango da?**

- Iribar. Expositok, berriaz, laguntzaile lanak beteiko ditu. Ligako ekipo guztietako jokalariaik prest daude etortzeko eta euren agintari eta entrenatzaileek ere baiezkoa eman digute.

**- Nolakoak dira federazioaren eta probintziako beste elkarrekin arteko harremanak?**

- Onak. Gure lana futbol mailan izan daitezkeen arazo guztiak gestio-



Iñaki San Jose

natzea da, gazte mailetik hasi eta gorenekoetara irainoko konpetizioak antolatu, aseguru kontuak ere gestionatu, sendagileak eta abarrak. Gero, arbitroak ere federazioaren barruan daude eta hemendik gutxira arbitroen batzarrak Bergaran egingo dira. Orain arte Donostian zentralizatuta egon da guztia eta aurrerantzean, Bergaran ere egingo dira batzarrak. As-

moa, arbitro berriak hartu eta horientzako ikastarok bultzatzea da, eta bestalde, astebukaeretan jokatzen diren partiduetako arbitroak hemen izendatuko lirarteke.

**- Eta Realaren artekoak?**

- Azken egunetako arazoak konpondu dira. Federazioaren eta Realaren arteko harremanak oso normalak dira. Bi erakundeetako buruek, kriterio ezberdinak izango dituzte gai askoren inguruan baina hori beste kontu bat da.

**- Bergara K.E. nola ikusten duzu?**

- Kirol mailan lan ona egiten ari dira. Aurreko direktibak ez dakit zenbat milioitako zorrak utzi dizkiela entzun dut. Ez dakit nork izango duen arrazoi, baina elkarreantzat ez da ona, gaur egun dirua lortzea ez baita erraza.



## BOLU GIMNASIOA

### ZERBITZUAK:

- 2 sauna.
- Hidromasajerako 2 bainontzi.
- Masajea.
- Solariuma.
- Estetika.
- Taberna.

### EGIZU GUREKIN:

- Aerobica (130 m2ko aretoa).
- Gimnasia (150 m2ko aretoa).
- Muskulazioa (160 m2).
- Karatea (150 m2).
- Squash eta raquetballa (2 kantxa).

## ESKEINTZA

Bazkide berriek opari eder bat jasoko dute: Kanarietan, bost izarretako aparthotel batean, bi lagunentzat astebeteko egonaldia doan.

### KUOTA:

Hilabetekoa: 4.600 + B.E.Z.  
Urtekoa: 37.000 + B.E.Z.

ARANERREKA, ☎ 76 51 20 BERGARA



*Beti Ondo taldea, 1959.*

**F**utbito txapelketa da une honetan herriko kirol-iharduerarik popularrenetakoa. Garai batean, futbitorik ez zenean, futboleant neurtzen zituzten indarrak Bergarako gazte-kuadrilek. Argazkia Bergarako Futbol Txapelketakoa da eta Seminarioko patioan aterata dago orain dela 34 urte. Hala ere, argazkiaren jabeak esan digunez, orduan ziren bezalakoxeak, igual-igualak dira orain ere.

**Lehenengo ilaran:** Angel Aranguren, Joaquin Ostolaza, Abdon Juaristi eta Jabier Ezkurra.

**Bigarren ilaran:** Inax Etxaniz, Fermin Aranguren, Joserra Arriaran, Cesar Cebrian eta Felix Mugika.

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Abdon Juaristi*

**YAZKI**

**UME GAZTE**

**Neska eta Mutil**

Irizar 3      Ibargarai 8  
Tfnoa: 76 16 54      Tfnoa: 76 54 73

*Iletxo*

Illeapaindegi  
mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15  
20570 BERGARA

**SIMON ARRIETA**

**PEDAGOGI LAGUNTZARAKO GABINETEA**

**ESKOLA PORROTA  
EBITATZEKO  
ERREFORTZUAK:**

- Ikasketa teknikak.
- Ikasketa eta etxeko lan bideratuak.
- Hezkuntza premia bereziak.

**PEDAGOGI TESTAK:**

- Adimena.
- Buru-gaitasuna.
- Hizkuntza.
- Ikasketa-ohiturak.

**BERREZIKETA:**

- Logopedia.
- Irakurketa-idazketa.
- Ulermena, etab.

**PSIKOMOTRIZIDADEA:**

- Koord. dinamiko orokorra.
- Koord. dinamiko berezia.
- Tonua, arnasketa, erlajazioa, literalitatea.
- Espazio-denborazko antolaketa...

**Helbidea: Simon Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42**

**ETXEBIZITZA**

**Garajea** hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

**Garajea salgai** Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

**Pertsona bat** behar dugu Deustun pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

**Pisu amueblatua salgai** Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea salgai** Katabian. ☎ 76 56 20 (gauzez).

**Garajea salgai** Iparragiren. ☎ 76 28 52.

**Pisua alokatzen da.** Builegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

**Bergaran pisua** betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

**Pisua alokatzen da.** ☎ 76 18 82.

**Garajea salgai** Sta. Marian. ☎ 76 43 89.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekan. ☎ 76 48 30.

**Pisua alokatzen da.** ☎ 76 46 15.

**Etxebizitza salgai** Martokon. Merkea eta berriztuta. ☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Bolun. 1.000.000. ☎ 76 23 37.

**Etxebizitza** (Martoko 4an) eta **garajea** (Ibargarain) salgai. ☎ 76 00 93.

**DENETARIK**

**Ortuan lan egiteko** makina erosiko nuke. ☎ 76 55 67.

**Citroen Visa** (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 764071.

**Ume kotxe bat salgai.** ☎ 76 02 00.

**Ford Taunus 2.000 CL** salgai. Egoera onean. ☎ 76 15 74.

**Bainu gelako** osagarriak salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ 76 31 23/36 59.

**Nintendo bat salgai** (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Ford Fiesta 1.4 Sporta** salgai. SS-X. Egoera eta prezio ezingobean. ☎ 79 76 89 (Ion).

**Ebakigailu elektrikoa,** pisu elektrikoa eta erakustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

**Seat 1.500 SS-94465** kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

**Gospel talde bat** osatzeko lagunak behar dira. ☎ 76 55 75 (Libe).

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

**Gamix kotsola** (adaptadore eta jokuekin) salgai. 28.000. ☎ 765028 (Iñaki).

**Eskalada ekipo berria salgai.** Peltz modeloa. Prezio onean. ☎ 76 18 94.

**Karabana bat salgai.** Ia berria. ☎ 77 04 98.

**Sega Megadrive** kotsola eta 4 joku salgai. ☎ 31 12 52.

**LANA**

**OHO eta ingeles** (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Emakume heldu bat** behar da haur atzeratu bat zaintzeko. ☎ 76 49 72.

**OHO, UBI, BBB eta LH** klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 34 (Jon).

**Ordenagailuz lanak** pasatzen ditut. ☎ 79 77 59.

**Ingelesezko klaseak.** ☎ 76 31 36.

**OHO, REM eta LH** klaseak. ☎ 76 24 31.

**Dibujo teknikoko** (mekaniko, diedriko..) klaseak ematen ditut. ☎ 765516 (Jabier).

**Ordenagailuz lanak** pasatzen ditut. ☎ 76 05 43.

**Ingeles Filolojian** lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

**Latin, Euskara eta Frantses klaseak.** ☎ 76 02 99.

**Hildakoak**

*Maria Bengoa Elejalde*  
azaroak 28, 76 urte  
*Josefa Ibarra Pildain*  
azaroak 29, 87 urte

**Jaiotakoak**

*Oibane Arazkonaga Sanchez*  
azaroak 22  
*Julen Muruamendiaraz Arana*  
azaroak 24

**TXURRUKA AUTOAK**

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorenzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT

**Beheko Taberna**

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**ARRASATE ERDIALDEAN**, Deba Garaiko  
merkatal gunerik haundiena aurkituko duzu.  
Hemen zure erosketek izen propioa izango dute.

# ibai-arte



ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL  
ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

**paseatuz erostea arte bihurtu dugu**  
**BISITA GAITZAZU!!**